

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### AGURAINGO UDALA

#### **Alkatearen eginkizunak alkateordearen esku uztea aldi baterako**

Alkateak, 2016ko urriaren 27ko dekretu baten bidez, ebazpen hau eman du:

2016ko urriaren 29tik azaroaren 1era bitartean, egun biak barne, Aguraingo udalerritik kanpo egongo naizenez,

Ikusirik apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, toki araubidearen oinarriak arautzen dituenak, 23.3. artikuluan, eta Toki korporazioen antolamendu, funtzionamendu eta araubide juridikoaren Arautegiak 44.1, 44.2, 47.1, 47.2 eta 48. artikuluetan ezarritakoa,

#### **EBAZTEN DUT:**

1/ Ernesto Sainz Lanchares lehenengo alkateordearen esku uztea Alkatetzaren aginpideak, nire eginkizunetan jardun dezan ni udalerritik kanpo nagoen bitartean, hau da, 2016ko urriaren 29tik azaroaren 1era bitartean, egun biak barne.

2/ Dekretu hau ALHAOn argitara dadila eta haren berri eman dakiola Udalbatzari, haren hurrengo bilkuran.

Agurain, 2016ko urriaren 27a

*Alkatea*

**IÑAKI BERAZA ZUFIAUR**